

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Baliarrain



Aurkibidea

Udalerria: Baliarrain

Sarrera



Tolosaldeko udalerria. Legorreta, Altzaga, Gaintza eta Orendainekin egiten du muga. Herriaren jarduera ekonomiko nagusia nekazaritza da. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAko (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da. (Argazkia [Wikipedia](#)tik hartua)

- **Biztanleak:** 131
- **Euskaldunak:** %81,25

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **6**
- Zintak: **9**
- Pasarteak: **124**
- Transkribatutakoak: **3**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **124**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- Goierri Telebista
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen

Hizlariak

Hilario Garmendia Garmendia (1932-2017)



Hilario Baliarraingo Bidearte baserrian jaio zen. Aita bertakoa zuen eta ama Erbeta baserrikoa. Oso ume zelarik hasi zen baserri lanetan, eskolatik aterata, kalean jolasteko denborarik gabe, etxera joaten zen, amak beti izaten baitzuen lanen bat beretzako. 14 urterekin eskola bukatu eta baserrian jardun zuen lanean soldaduskara joan zen arte. Bueltatzerakoan, Legorretako paper-lantegian ibili zen ia urtebetez, baina etxean beharra zegoenez, baserri lanetara bueltatu zen. Baliarrainen jaio, hazi eta bizi izandakoa izanagatik, bertako hainbat kontu aipatu zizkigun elkarriketan.

Demetrio Garmendia Sarasola (1919-2015)



Baliarraingo Erbetagoikoa baserrian jaio zen. Aita bertakoa zuen, eta ama Itsasondokoa. 16 urte zituela hasi zen gerra, eta 18 urte bete bezain laster eraman zuten frontera. Ebroko batailan izan zen, eta ez zen nahi bezain laster itzuli etxera. Itzuli zenean, etxeko martxa hartu zuen, eta baserritik atera zuen bizimodua. 2009ko udan, bere jaiotetxea, Ibiur-ko presak hartu zuen urpean eta Legorretara joan zen bizitzera.

Maria Iztueta Altuna (1931)



Baliarraingo Errementarietxeberri baserrian jaio zen; aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Lazkaokoa. Eskolan Baliarrainen ibili zen, baina Legorretan eta Altzagan ere ibili zen maisu partikularrekin. 16 urte zituela Idiazabalera joan zen taberna batean lan egitera; goizetan tabernan aritzen zen eta arratsaldeetan, berriz, josten ikasten. 22 urte zituela Idiazabalera ezkondu zen.

Rosi Nazabal Garmendia (1943)



Baliarrainen jaioa, gaur egun Andoainen bizi da. Gurasoak Baliarraingoak zituen, abeltzainak eta nekazariak. 10 senidetan hirugarrena. Umeen eta amaren zainketan eta ostalaritzan lanean aritua. Aresoko (Nafarroa) Martin Belaunzaraneekin ezkondua eta hiru seme-alaben ama.

Rufina Oiarbide Garmendia (1924)



Baliarraingo Abali baserrian jaio zen. Gurasoak biak ziren Baliarraingoak. Umetan herriko eskolan ibili zen. Behealdeko eta goialdeko haurrak deman aritzen ziren eta jolas ugari egiten zuten horren harira. 14 urterekin eskola bukatu eta ordutik etxean aritu zen lanean. Abalira bertara ezkondu zen eta seme bat izan zuen.

Bittori Zubeldia Garmendia (1926)



Bittori Baliarraingo Balarate baserrian jaio zen. Bederatzi senideetan zazpigarrena, 6 urte zituela ama hil zitzaion. Umetan, klean jolasean ibiltzea oso gustoko zuen eta eskolara ere gustora joaten zen, baina 13 urterekin eskola utzi beharra izan zuen eta ahizparekin joan zen Alegira. Bertan zazpi urte egin eta 20 urte zituela, Zumarragara joan zen neskame, Ugaldetarren etxera. 27 urterekin, [Leandro Iraeta Elgarresta](#)rekin ezkondu zen, Zumarragako Legazpi kalera, eta 4 seme-alaba izan zituzten. Ezkondu ondoren senarraren familiako estankoan ere lan egin zuen.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Aisia

1.1. Soinu-jotzaileak eta dantza Baliarrainen

- **Hizlaria(k)**: Garmendia Sarasola, Demetrio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: BAL-001/032
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:59:40. **Bukatu**: 01:01:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena**: Gerra ondoren Larraitzeko festetara joaten ziren. Baliarrainen ere bazen soinu-jotzailea, Joxe Mari. Inguruko herrietatik dantzara etortzen ziren. Soinu-jotzaile famatuak ere baziren, 'Tarragona' adibidez. Dantzan ibiltzen ziren.

Transkripzioa

- Ta gazte garaiyen, jai atsaldetan, klaro, ya behin, zea, hoitalau urtekin ez ziñaten txori billa ibiliko, kabi billa o ze...?
- Hoitalau urtekin?
- O behin, behin gerratik etorri ziñanen...
- A. Juten giñen askotan Larraitza, juten giñen.
- Dantzara?
- Larraitzen festa beti izaten zan ta. Ta herriñ'e bazan bat soiñu jotzen zona ta.
- Bai? Nola zun izena?
- Joxe Mari.
- Baliarraingoa?
- Bai. Ez zan oso ona're on-ona baiño bestetan iñun ez zan gerra ondoren soñuik eta, jendea etorri itten zan Ikaztegietatik eta Gaintzetik eta Altzagatik eta, jendea, hauntza, Baliarraíñea etortzen zan. Bai. Ta han dantzan.
- Ze gerra garaian, osea, gerra aurretik toki askotan zan soiñu jolia, baiño gerra ondorenen soiñu joleik ez zan iya?
- Ez, beno... bazien herri haunditan, bai. Bazien famatu xamarrek soiñu jotzailliak ordun, Tarragona ta ez dakit zein zien gehio're. Gelatxo-ta izaten

zien, han Bizkaikoa izango zan Gelatxo usten det.

- Ta ordun dantzan ibilli nahi izaten zenuen jai atsaldetan?
- Bai.
- Beira gehiyo igual?
- Beida, beida gu behintzat gehienak. Ez, gu baiño haundixeok ibiltzen zien dantzan.
- Suelton, noski.
- E?
- Suelton ibiliko zian?
- Suelton. Bai.

1.2. Baliarraindik Herniora Bidanitik barrena

- **Hizlaria(k):** Garmendia Sarasola, Demetrio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** BAL-001/033
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:01:58. **Bukatu:** 01:03:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- **Laburpena:** Behin aitarekin Herniora igo zen oinez, Legorretatik barrena Santutxora, handik Bidanira eta gero gora, Hernion meza entzutera. Soldadu izatetik etorri ondoren ere igo zen Herniora.

Transkripzioa

- Ordun Herniyoa-ta're juten ziñaten, o zuek Herniyoa ta [hala] ez?

- Herniyoa?

- Bai.

- Bai. Nik e... ez dakit hamabi-hamalau urte nittula aitte zanakin-ta jun nitzen, Baliarraindik oiñez. Ta hemen Legorretatik gora iyo, hortik ateatzen giñen, zea, Santutxoa, ta Santutxotik Bidania jun, Bidanin meza entzun ta gero handik Herniyoa. Ta buelta. Bai. Behin behintzat bai ta gero... gero, soldaduskatik etorri ta gero, bai, berriz 'e. Hiru-lau aldiz izan naiz. Baten Iturrioztik Asteasuko han... handik jun giñen, han, han kotxea utzi ta. Beste lagun batekin jun nitzen handik. Ta bestetan behetik, Bidanitik, gaiñantzen, oiñez jun ezkeo.

1.3. Baliarraingo festak

- **Hizlaria(k):** Garmendia Sarasola, Demetrio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** BAL-001/034
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 01:03:20. **Bukatu:** 01:04:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena:** Legorretako festetara joaten ziren. Pazko bigarreanean eta San Pedroetan Larraitzen biltzen ziren. Baliarraingo festetan oilaskoei lepoa mozten zieten. Dantza-soka ere izaten zen.

Transkripzioa

- Ta, bestela, Baliarraindik ze mendita juten ziñaten, o ze eskursio tipo izaten zan Baliarraiñen?
- Herrin festak, bueno, hemen Legorreta behintzat, beno, beti.
- Festak?
- E?
- Festata?
- Festata, bai. Ta gaiñantzen gero... Baliarraiñen izaten die Amabergina agostukotan, ta Orendaiñen'e beren izaten die ta, ezin jun hauntza. Itsasondon'e beren izaten zien ta horrea're ez ta... Gero, hoi, Pazkoa Bigarrena ta San Pedro ta hoik zean. Larraitzen. Larraitzen jendea biltzen zan... beno... itxura gabe, jendea! Zaldibitik eta hortik danetatik eta, Amezketa ta... bueno!
- Ta Baliarraiñen ze izaten zan festetan? ze festa klase izaten zian?
- Beno, itten zittuen, oillaxkoi lepoa moztu ta halako zea batzuk. Ta dantza-soka, dantza-soka atatzea. Ta dantza iñ'e bai, dantza suelson.
- Bakarren bati begiya bota're bai.
- E?
- Bakarren bati igual...
- Bai, edadekok beidatuko zien. Ta...

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Baliarraingo eskolan askotan maistra falta zitzaien (BAL-001/003)

Amaren lehenengo ezkontzako bi arreba neskame ibili ziren. Beste anai-arrebak berriz etxean eta eskolan. Eskola Baliarrainen zuten. Etxetik ordu erdi baino gehiago zuten eskolara joateko. Maistra gaixorik zegoen eta ordezkioak ekartzen zituzten eta askotan inor ez zuten bidaltzen.

2. Dotrina euskaraz eta eskola erdaraz (BAL-001/004)

Eskolatik etxera korrika bueltatzen ziren, etxeko lanetan laguntzera. Maistra erdalduna zenez ez zioten tutik ulertzen. Dotrina memoriaz ikasi behar izaten zuten eta hura behintzat euskaraz izaten zen. Dotrina Elizan zegoen lokal batean apaizak erakusten zien.

3. Apaizari errespetu handia zioten (BAL-001/005)

Apaizei errespetu handia zieten. Txapela jasota "Ave María Purísima" esaten zuten ondoan pasatakoan eta berorika hitz egiten zioten.

4. Ibiur izenaren jatorria (BAL-001/006)

Orain Ibiurreko presa dagoen lekuan, lehen bi erreka elkartzen ziren eta "bi ur" deitzen zioten leku hari. Hortik dator "Ibiur" izena. Puntu horretan hiru herritako lurrak elkartzen ziren: Gaintza, Baliarrain eta Orendain. Han ez zegoen etxerik.

5. Inguruko hiru herrien arteko elkartea: "Hiruherrietak" (BAL-001/009)

Baserria herritik aparte zegoen, beste asko bezalaxe. Hala ere, Baliarraingoak sentitu dira beti. Bolada batean herri txikiak elkartzeko joera izan zen eta Ikaztegieta, Baliarrain eta Orendainek "Hiruherrietak" sortu zuten, baina gaizki konpontzen zirenez atzera egin zuten. Elkarte hori orain dela 25 urte sortu zuten.

6. Barandiaran Baliarrainen latina ikasten (BAL-001/010)

Demetrio txikia zenean Baliarrain herri oso txikia zen. Bertako semea zen apaizak latina erakusten zuen eta Joxe Miguel Barandiaran bertara joan omen zen latina ikastera. Baliarrainen Seminario antzekoa sortu zuten, apaiz-etxean.

7. Dantzaldiak apaizaren ezkutuan (BAL-001/011)

Apaiza oso diktadorea zela dio, tabernako ordutegiak ere kontrolatzen zituen. Demetrioren aitak kontatzen zuenez, goiko iturria dagoen inguruan dantzaldiak antolatzen zituzten apaiza konturatu gabe. Goiko baserri bateko soinu-jotzaileak antolatzen zituen dantzaldiak; eta, apaizak jakin zuenean, soinua "infernuko hauspoa" zela esan eta erre egin omen zuen.

8. Herritarrek taberna berria ireki zuten (BAL-001/012)

Taberna Udaletxearena zen, Kontzejua deiturikoa eta apaizaren kontrolpean zegoen gehienetan (bost urtetik behin enkantean ateratzen zen). Orduan herriko batzuk beste lokal bat taberna moduan egokitu zuten, oraindik ere elkarte bezala funtzionatzen du.

9. Gerra hasiera (BAL-001/013)

Gerra hasi zenean, 16 urte zituen. Ikaztegietak zubia bota zutela gogoan du. Nafarrak etorri ziren, eta horrela enteratu ziren gerra hasi zela. Orduan zazpi eguneko kontua zela esaten zuten. Nafarroatik Mola zetorrela esaten zuten. Francok Molari hegazkinean tranpa jarri ziola esaten zuten.

10. Batzuek ihesi egin zuten gerra hasieran (BAL-001/014)

Nafarrak sartuko zirela abisatu zutenean, batzuek ihes egin zuten; baina Demetrioren familiakoak ez ziren mugitu. Ondoko baserrikoek Tolosako senide batzuk jasota zituzten.

11. Soldaduak baserri inguruan (BAL-001/015)

Tropak goitik behera zetozen eta etxe atarian begira egon ziren. Gorriak ez zeuden defendatzeko prestaturik, Eibartik etorritakoak ziren. Zenbat ziren galdetu zirenean, istilu handia sortu omen zen. Baserri guztiak miatzen ibili ziren nafarrak. Abuztuaren 5ean pasa ziren bere inguruan. Miaketak izan arren, ez zuten beldurrik. Nafarrak erdaldunak ziren.

12. 17 urte zituela, gerrara eraman zuten (BAL-001/016)

Gerra berehala bukatuko zela pentsatu arren, 17 urte zituztenean joan behar izan zuen. Kuartelean egon beharko zutela pentsatzen zuten, frontera joan gabe. Ezer ez zekitela dio.

13. Ebroko bataila (BAL-001/017)

Gasteizera eraman zuten eta bertan tiroak botatzen ikasi zuen. Hogeita bederatzi egun geroago, frontera eraman zuten. Castellóko frontera eraman zuten, eta handik Valentziara. Gorriak Ebroko ibaiaren aldean zeuden eta besteak beste aldean. Izugarrizko hilketa egon zen Ebron. Hildakoak mandoetan ilaran eramaten zituztela gogoan du.

14. Gerran hildakoak (BAL-001/018)

Kanoiak, bonbak... arma mota asko erabiltzen ziren, baina ez zuten buruz buruko borrokarik izan. Tolosako bati ur bila joandakoan gertatutakoa kontatzen du. Hainbat lagun hil zitzaizkion.

15. Gerran alde batetik bestera (BAL-001/019)

Ebroko batailaren ondoren, Katalunia oinez zeharkatu zuten. Bartzelonan desfilatu zuten. Ondoren, Logroño, Miranda, Salamanca eta hainbat lekutan ibili zen. Navalmoral de la Matan deskantsatzen egon ondoren, Toledo eta gerra amaiera. Tren batean sartu eta Cartagenaraino eraman zituzten eta beste bandokoak armak entregatzen ikusi zituzten. Denek poza hartu zuten.

16. Gorriek ez zuten diziplinarik (BAL-001/021)

Beti aurrera egiten zebiltzanez, zaila zen beste bandora pasatzera. Gorriek ez zuten gerra irabazteko aukerarik. Gorriek ez zituzten nagusiak errespetatzen. Diziplinarik gabe gerra irabaztea ezinezkoa zen.

17. Alemanek Franco lagundu zuten (BAL-001/022)

Jeneral hoberena Miaja zela esaten zuten. Francok alemanei esker irabazi zuen gerra. Haiek egin zituzten bonbardaketak. Abiazioa egon izan ez balitz, Bilbon ez ziren sartuko. Gipuzkoatik asko joan ziren Bilbo defendatzera eta ondoren Santanderrera.

18. Bihotzez abertzaleak ziren (BAL-001/023)

Bihotzez abertzaleak ziren, baina isilik egon behar izan zuten. Baliarraingo apaiza sermoiak erdaraz egitera behartu zuten. Demetrioren amak mezan ezer ulertzen ez, eta alde egingo zuela esan zion apaizari.

19. Katalanak Francoren alde (BAL-001/024)

Frontean euskaldun gutxi zeuden Demetriorekin. Katalan asko, Frantziara ihes egin ondoren, Donostiatik barrena berriro Espainiara itzuli ziren, eta Francoren alde borrokatu ziren.

20. Frontetik gutunak erdaraz (BAL-001/025)

Gerra garaian ezin zuten esan non zebiltzan. Gutunetan "¡Viva Franco, arriba España!" esanez hasi behar izaten zuten, eta dena erdaraz idatzi behar zen. Kapilauak gutunak irakurtzen zituen. Norbaiten laguntza behar izaten zuen Demetriok erdaraz idatzi ahal izateko.

21. Eskolatik etorritakoan etxean lanean (BAL-001/028)

Telebistarik ez zegoen garaian asko irakurtzen omen zuen, baina orain ez. Txikitan ez zuten irakurtzeko denborarik, etxean lanak egiten lagundu behar izaten zuten, lurra jiratzeko.

22. Karramarroak harrapatzen (BAL-001/029)

Jai arratsaldetan, txoriak bilatzen ibiltzen ziren. Arrantzan ere ibiltzen ziren. Karramarro asko izaten ziren eta eskuz edo salabardoarekin harrapatzen zituzten. Behiak larrera eramaten zituzten bitartean, karramarroak harrapatzen zituzten, baina etxean ez zituzten estimatzen. Beranduago, jendea eguna pasatzera etortzen zen karramarroak hartzera.

23. Baliarrainetik gutxitan ateratzen ziren (BAL-001/030)

Baliarraindik Donostiako estropadak ikustera joatea izaten zen ilusioa. Inauteritan Tolosara eta Santa Luziatan Zumarragara. Hortaz aparte inora ez ziren joaten. Azokara Ordiziara joaten ziren eta noizean behin Tolosara. Ordiziara Autobusez joan zitekeen eta Tolosara berriz trenez, Legorretara joan ondoren.

24. Gerra ondorengo desanimoa (BAL-001/035)

Gerra ondoren txintxo ibili behar izaten zen. Nahiko miseria zegoen. Gerratik erabat desanimatuta itzuli zen. Oso atzeratuta izatearen sentrazioa zeukan. Orduan gauzak izugarri aldatu ziren.

25. Fronteko bizimodu gogorra (BAL-001/036)

Gerrako kontuak etxean azaltzen zituzten. Gerran guztiek ez zuten esperientzia berdina izan. Madrilgo frontean egon zirenak denbora asko egon ziren posizio berdinean. Demetrioren taldekoak, berriz, beti erasoan ibiltzen ziren, karga guztia gainean zeramatela. Marmelada eta sardinak besterik ez zituzten jaten. Gauean lo egiteko lastorik aurkitzen bazuten, pozik. Ebron behintzat ez zuen hotzik egiten, Teruelen, berriz, askori hanka moztu behar izan zien hotzarengatik.

26. Ihes egiten saiatzeagatik zigorrak (BAL-001/037)

Baimenarekin joan ondoren itzuli ez zen Azkoitiko bati gertatu zitzaiona kontatzen du. "Pelotón de castigo" batera eraman zuten eta han, eztanda egin gabeko munizioak biltzen edo hildakoak lurperatzen jartzen zituzten. Zigorren ondoren, hiru urteko errekarua.

27. Gerra garaiko fusilamenduak (BAL-001/038)

Ofizialek bidegabekeria handiak egiten zituzten. Ebron, gorrietako batzuk kontzentrazio-esparrura eraman orde, fusilatu egin zituztela kontatzen du.

28. Amona joaten zitzaien baserriko lanetan laguntzera (BAL-002/005)

Errementarietxeberri baserrian morroia izaten zuten. Zortzi anai-arreba bizi izan ziren, izan ere bere aurreko ahizpa eta ondorengo anaia umetan hil ziren. Gogoan du amona joaten zela baserriko lanetan laguntzera: babarruna biltzen, arropak konpontzen... Zaharrenen arropa txikiagoentzat. Dena aprobeztatzen zen.

29. Sagarrak saltzera Donostiara, Bretxara (BAL-002/008)

Amak soroan ere lanean jarduten zuen. Gero sagarrak eta barazkiak saltzera joaten zen azoketara: Ordiziara, Tolosara, Donostiara... Bi zaldi kargatuta eramaten zituzten gaiak Ikaztegietako geralekura eta handik trenez Donostiara, Bretxara. Gerora karroa erosi zuten eta txabolatxo bat ere egin

zuten, hura gordetzeko. Bera gutxitan joan izan zen feriara, etxean bazuen nahikoa lan eta.

30. Baserrian lana "buruz gainetik" (BAL-002/009)

Abereak izaten zituzten etxean (txerriak, oiloak, untxiak...) eta nahikoa lan izaten zuen haiek gobernatzen. Txerriak basora eramaten zituzten, gaztainak eta ezkurak jatearren eta haiek zaintzen ibili behar. Ganaduak ere zaindu egin behar, jetzi... Lana "buruz gainetik" izaten zuten. Aitak esaten zien San Migeletatik Domu santu eguna bitarte atsedetik gabe lan egin behar zutela.

31. Inguruko herrietako festetara joateko aukera gutxi (BAL-002/010)

San Migeletan Altzagan eta Gaintzan festak izaten ziren. Orduan jaietan bakarrik egiten zen festa. Inguruko herrietara joateko aukera handirik ez zuten eta festara gutxi joan zela dio. Alzagara gehiago joaten ziren Gaintzara baino.

32. Baliarraingo baserriak (BAL-002/011)

Baliarrainen garai batean 20 etxe inguru zeuden; baserriak izendatzen ditu.

33. Pilotan, korrika edo haritzen poxpolinekin jolasean (BAL-002/013)

Igandeetan bi meza egoten ziren. Arratsaldean bezperetara joatea derrigorrezkoa izaten zen. Gero eliza inguruan ibiltzen ziren jolasean, korrika edo pilotan. Pilotan "a fueras". "Al corro de las patatas". Kanikekin edo haritzaren poxpolinekin ere jolasten zuten umeek.

34. Neguan inaurkina bildu behar (BAL-002/014)

Neguan inaurkina biltzen zen: orbela bildu eta etxera ekartzen zen. Garo garaian garotara. Metan jartzen zuten garoa, orbela gordetzeko ere lekua behar izaten zen eta.

35. Garai bateko Baliarrain: eliza, eskola, apaiz-etxea... (BAL-002/016)

Baliarrainen eliza, kontzejua (udaletxea) eta eskola zeuden. Eskola eta udaletxearen artean etxebizitza zegoen. Ordiziatik joaten zen maistra eta bertan pasatzen zuen astea. Eskola azpian frontoia. Eskola gainean beste bizitza bat zegoen eta han maisua egoten zen. Apaiz-etxea eta ondoko baserrian ostatua. Gaur egun etxeak egin dira, baina lehen baserriak bakarrik zeuden.

36. Gerra sasoian soldaduak baserriko lanetan laguntzera (BAL-002/018)

Gerra sasoian soldaduak joaten zitzaizkien Alegiatik baserriko lanetan laguntzera, jateko edo diru truk. Ez zegoen aurrerapenik eta dena eskuz egin behar. Laiekin ibiltzen ziren lurra bueltatzen. Auzolanean egiten ziren zenbait lan.

37. Legorretara eta Alzagara, klase partikularretara (BAL-002/020)

Zazpi urte ingururekin hasi zen eskolan. Lehenengo irakurtzen ikasi behar. Negu partean Legorretako maisu batengana joaten ziren klase

partikularretara. Altzagara ere joaten zen. Gaztelaniaz ikastea kostatu egiten zitzaion eta behin maisuak zigortu egin zuen. Beranduago irten arren, bere lagunak bidean harrapatu zituen Baliarrainera orduko. Berari ez zitzaion tokatu, baina makilarekin jo ere egiten zuen maisuak.

38. Legorretara eskolara, litro esnea eta ogitartekoarekin (BAL-002/022)

Maisuak behin zigortu egin zuen. Beranduago irten arren, korrika joan eta lagunak bidean harrapatu zituen Baliarrainera orduko. Legorretako klase partikularretara joaten zenean, litro bat esne eta ogitartekoa eramaten zituen, bertan bazkaltzeko. Litro esnea postariari eramaten zioten eta hark basokada bat esne ematen zien.

39. Uda partean eskolara gutxiago, baserrian lan asko zegoelako (BAL-002/024)

Negu partean egunero joaten zen eskolara, baina uda aldean baserrian lan asko egoten zen. Bera zen zaharrena eta lan gehienak berarentzat izaten ziren. Umetan, amak nola egiten zuen ikusita, oilaloka arrautza txitatzen nola eduki zuen.

40. 16 urterekin Idiazabalera, tabernako lanetan laguntzera (BAL-002/026)

14-15 urtera arte ibili zen eskolan. Amak Idiazabalgo batekin harremana zuen eta 16 urte ingururekin hari tabernako lanetan laguntzen hasi zen goizetan. Arratsaldeetan josten ikastera. Neguan, baserrian lan gutxiago zegoenez, Idiazabalen geratzen hasi zen pixkanaka.

41. Idiazabalgo Nati tabernan lanean (BAL-002/028)

Idiazabalgo plazan zegoen Nati tabernan jardun zuen lanean. Zer lan egiten zituen. Bertako lantegiko jendea joaten zen bazkaltzera. Larunbat edo jai iluntzeetan txistua edo soinu-jotzaileraren bat egoten zen Idiazabalen. Urtean behin 'Ministro' soinu-jotzailea jartzen zuten. Baserriko bizimoduarekin alderatuta, desberdina zen Idiazabalgoa.

42. Arratsaldeetan josten ikasten (BAL-002/029)

Baserriko jendearen eta herrikoen arteko aldea. Arratsaldeetan josten ikastera joaten zen Idiazabalen. Tertulian egoten ziren. Makina erabiltzen ikasi zuen pixka bat. Amak ere bazeukan josteko makina.

43. Osaba Teruelen hil zen frontean (BAL-002/035)

Gerra hasi zenean, bost urte zeuzkan. Hegazkinak ikusi zituztela dio. Osaba Teruelen hil zen frontean eta gogoan du kaxa zuri batean ekarri zutela eta udaletxera joan zela amonarekin hura ikustera.

44. Gerraosteko errazionamendua; horman zuloa, uzta gordetzeko (BAL-002/036)

Gerraosteko errazionamendua; ogi beltza, "boniatoak", gogortutako olio... Osaba alondegian egoten zen eta haren bitartez lortzen zuen amak olio. Jendea errotara gauez joaten zen. Etxean zuloa egin zuten horman, uzta gordetzeko, etxea miazera etortzen ziren eta. Estutasunak pasatzen zituzten.

45. Jaietako otordua (BAL-002/039)

Andra marietan izaten dira Baliarraingo jaiak. Orendaingoak ere bai. Senideak joaten ziren eta bezperatik hasten ziren prestatzen. Garai batean oilaskoak saldu egiten ziren, baina ez zegoen ohiturarik etxean jateko. Ze jatordu izaten zen.

46. Baserriaren errenta ordaintzeko adina izanez gero, gustura (BAL-003/005)

Maizterrak ziren baserrian eta errenta ordaintzeko dirua izanez gero, gustura, urtebeterako bakea behintzat. Dirua zutenek agian izango zituzten bizioak, baina beraiek ez.

47. Umetako jolas eta entretenimenduak (BAL-003/007)

Alanbrearekin gurpil antzekoa egin eta harekin ibiltzen ziren jolasean umetan. Bide eskasak zeuden eta ezin ondo ibili. Baloirik ez zuten. Eskolatik irteerakoan pilotan hasten ziren, baina apaizak bota egiten zituen elizpetik. Etxean zain egoten ziren, beti egoten zen lanen bat egiteko eta. Belarra ontzeko sasoian, gurasoak siestan zeuden bitartean errekarara joaten ziren amuarrainetara eta errieta egiten zieten.

48. Festetan karameluak, opilak edo erroskillak jateko aukera (BAL-003/009)

Umea zenean, izaten ziren ezti koloreko karameluak. Festetan saltzaileak etortzen ziren, opilak edo erroskillak saltzera.

49. Bost urtez soldadu (BAL-003/014)

Soldadu joan aurretik behin bakarrik afaldu zuen tabernan. 18 urterekin gerrara eraman zuten eta bost urte egin zituen soldadu. Itzuli zenean, lagunak aldean atzeratuta zegoela ikusi zuen, dantzan ere ez zekien eta.

50. Gerratean putzu zikinetako ura edaten (BAL-003/016)

Gerra garaia txarra izan zen. Frontean ez zuten edateko urik izaten eta putzu zikinetatik hartzen zuten ura. Gero beherakoarekin ibili zen eta ondorioak ere izan zituen.

51. Artoa zuritu bitartean arrosarioa esan (BAL-003/018)

Mezara joatea derrigorrezkoa izaten zen, baina ez zutela asko parte hartzen dio. Artoa zuritzen zuten bitartean arrosarioa esan behar. Amonak gaztainak erretzen zituen eta gero denak gaztainak jatera. Afaltzeko patata eta taloa eta esnea jaten zituzten. Etxean patatarik ez zen urtean nonbaitetik ekarri behar. Nafarroa aldetik karroarekin etortzen ziren saltzera.

52. Juanito Lopek egindako Joan XXIII.aren irudia (BAL-003/020)

Joan XXIII.a aita santuak egin zituen aldaketa asko elizan. Garai batean mezak latinez ziren, gero euskaraz. Tolosako Juanito Lope eskultoreak egindako Joan XXIII.aren irudia zegoen Baliarraingo Elkartean.

53. Ongarria egiteko, orbela eta garoa batu; Ordiziako feria (BAL-003/022)

Garai batean baserriak txikiak izaten ziren eta dena aprobetxatu nahi izaten zen. Ongarria egiteko, orbela eta garoa batzen ziren. Basoak gaur baino garbiagoak egoten ziren. Ordiziako ferian abereak ere egoten ziren lehen eta eguna pasatzera joaten ziren.

54. Soldadu joan aurretik egindako bi irteerak: Donostiara eta Zumarragara (BAL-003/024)

Oinez ibiltzen ziren batetik bestera. Soldadutzatik etorri eta gero bigarren eskuko bizikleta bat erosi zuen. Gerora moto txiki bat izan zuen. Arreba Martutenen (Donostian) bizi zen eta behin estropadak ikustera joan ziren, mutikoa zela. Legorretara oinez, handik trena hartu eta Hernanira. Hernanitik tranbian Martutenera. Eguraldi txarragatik estropadak atzeratu eta hiru egun pasa zituzten han. Azkenean estropadak ikusi gabe etxera. Beste behin Zumarragara joan zen aitarekin, Santa Luzietako feriara.

55. Gerra sasoian Espainia osoan zehar (BAL-003/025)

Soldadutzan Gasteizera eraman zituzten lehenbizi eta hilabete baino lehenago Castelló-ko frontera. Espainian zehar ibili eta gero 4 hilabete pasa zituen Otsagin. Geroago Kanarietara bidali zuten eta bi urte pasa zituen han. Itsasontziz egin zuten bidaia. Urte batzuk geroago Kanarietara itzuli zen eta oso aldatuta ikusi zuen.

56. Azokan saldu eta erosi; arropa berririk ez (BAL-003/027)

Garai batean ez zegoen denda handirik. Asteazkenetan azokara joaten zen ama. Arrautzak salduta ateratzen zuen diruarekin etxerako behar zuena erosten zuen: olio, azukrea, kafea... Anaia zaharragoari txiki egindako prakak erabiltzen zituen eta, puskatutakoan, konpondu egiten ziren. Zapata berririk ez du gogoan. Abarkekin ibiltzen ziren.

57. Gabonetako eskea; turroia jateko zain (BAL-003/032)

Gabonetan etxez etxe ibiltzen ziren eskean. Kantari hasiera nola ematen zioten. Gero etxeak koplatzen ziren: etxeak jauna, maiorazkoa... Limosna jasotzen zuten eta harekin parranda gero. Turroia jateko zain egoten ziren. Xanpainik ez zen egoten. Urtero sagardoa egiten zuten etxean eta hura izaten zen edari ohikoena. Ardoa gutxi. Hala ere, mozkor gehiago izaten ziren lehen.

58. Baserri izateko egitura kaskarra baina, maizter zirenez, ezin konpondu (BAL-004/002)

Erbeta baserriaren egitura ez zen oso egokia baserri bezala ustiatzeko baina nagusiak ez zuen konponketarik egin nahi izaten. Lurrak ordea onak zirela dio. Urtero ordaintzen zuten errenta.

59. Kaminoa egiteko zailtasunak (BAL-004/004)

Oraindik maizter zeudela hasi ziren kaminoa egiten. Baserriaren jabe ez zirenez, ez zieten aurrera egiten utzi. Behin baserria erosita, jarraitu ahal izan zuten. Aldundiak emandako diru-laguntza segituan amaitu zitzaizela dio. Diru-bilketak egin ohi ziren auzolanean eraikitzen ziren kaminoak amaitu ahal izateko.

60. Kaminoa nola egiten zuten (BAL-004/005)

Lehenengo bidea zabaldu behar izaten zen. Horretarako erabiltzen ziren erremintak izendatzen ditu.

61. Eskola gutxi eta lan asko (BAL-004/008)

Baserrian lan asko egon ohi zen. Eskolan gainera, bitarteko irakasleak izaten zituztenez, gabe geratzen ziren askotan. Zamorako irakasle bat dauka gogoan. Gaztelerarekin zailtasunak zituen Demetriok.

62. Errepublikarekin erregearen argazkia desagertu zen eskolatik (BAL-004/009)

Errepublika aldarrikatu zutenean erregearen argazkia eskolatik desagertu zela gogoratzen du.

63. Nolakoa zen bere haurtzaroko Baliarrain (BAL-004/010)

Eskola eta 25 baserri inguru zituen Baliarrainek. Apaizetxea oso handia zen. Herriko tabernan apaizak agintzen zuela dio; seminaristak neska gazteekin hizketan ikustean erretorearen haserrea dauka gogoan.

64. Apaizaren boterea (BAL-004/011)

Apaiztegira etortzen ziren gazte askok Baliarraingo baserrietan egiten zuten lo. Apaizaren botere handiaz dihardu. Soinujole batekin gertatutako pasadizoa: apaizak haren soinuari su eman zionekoa. Apaizaren diktadurarekin konforme ez zegoen herritar talde batek ezkutuko taberna bat zabaldu zuen.

65. Herritik kanpora egiten zituen irteerak (BAL-004/013)

Donostiako estropadak ikustera joatea zuen gogoko Demetriok. Olatu batek bi "señorita" bota zitueneko pasadizoa dakar gogora. Zumarragako Santa Lutzi eguneko azokara aitarekin joaten zen urtero eta baita Larraitzen ospatzen zen erromeriara ere.

66. Soldadu zegoela etxera idazten zituen gutunak (BAL-004/015)

Soldadu zegoela, etxera idatzi beharreko gutunetan zer idazten zuen gogoan dauka. Gazteleraz idatzi behar izaten zuten. Euskaraz idatzitako gutunak, irekita bota behar izaten zituzten apaizak irakurri zitzen. "escribe lo mismo en castellano" oharra zekarren gutuna jaso zuen bueltan behin.

67. Fronteko egun bat nolakoa zen (BAL-004/016)

Fronteko egun bat deskribatzen du. Jatorduak oso eskasak izaten ziren eta edateko urik ez zuten izaten. Erasoak nola antolatzen zituzten.

68. Tenerifen ikasi zuen arrain-sarda bat itsasoan bereizten (BAL-004/019)

Tenerifen izan zuen soldadu bezala sasoi lasaiena. Arrain-sarda noiz zetorren bereizten han ikasi zuen. Herri guztia haren bueltan nola mobilizatzen zen kontatzen du.

69. Bizimodua abeltzaintzatik (BAL-005/004)

Abeltzaintzatik ateratzen zuten bizimodua: esnea saldu, zekorrak hazi eta saldu... baina ez zituzten edukitzen sei behin baino gehiago. Soroan ere lan egin behar, ganadua elikatzeke. Lan ugari egoten zen baserrian.

70. Ehizarako zaletasuna (BAL-005/006)

Ehiza gustatzen zitzaion. Bera ez zen ibiltzen, baina baziren basurdetan ibiltzen ziren taldeak. Behin basurdea nahiko gertu tokatu zitzaion basoan. Bera usotan ibiltzen zen auzokoekin batera. Galeperrik ez zen pasatzen inguruetan, usoak eta kurriloak bai.

71. Azeria harrapatzeko "batida" eta zepoak (BAL-005/009)

Beraien sagasti baten inguruan azeri-zuloa zegoen. Inguruko herrietakoek "batida" (uxaldia) antolatu zuten. Txakurrak usaina hartuta hurbildu ziren zulora eta tiroka jardun zuten barrura, baina ez zuten azeririk harrapatu. Gero, zepoa jarri zuten, baina, hala ere, ihes egin zuen azeriak. Gerora berak nola lortu zuen azeria harrapatzea.

72. Azeria edo azkonarra harrapatu ostean, eskean (BAL-005/010)

Azeria zepoan harrapatu zuenean, bizilagunak hil zuen tiroz jota. Beste behin azkonarra harrapatu zuen zepoarekin. Gero ilobak eskean ibili ziren azkonarra hartuta. Piztiak kaltegarriak zirela eta, dirua eskatzen zen haiek harrapatutakoan.

73. Belarra ihartzeko, eguraldi ona behar (BAL-005/014)

Belarra ihartu behar zenean, eguraldi ona behar izaten zen. Askotan zaila izaten zen denak batera egitea. Udan sarri jotzen zuen trumoi. Halakoetan, azkar joaten ziren eskuarea edo sardea hartuta, belarra biltzer.

74. Bedeinkatutako gurutzeak (BAL-005/018)

Erramu egunean gurutzeak bedeinkatzen zituzten eta Santa Krutz egunean etxeko sarreran eta soroan jarri. Gero, kredoa errezatu.

75. Sagardoa egiten zen baserri gehienetan (BAL-005/022)

Garai batean baserri gehienetan egiten zen sagardoa. Bizitzen hasita zegoenean, botiletan sartzen zuten. Beste baserri batera eramaten zuten sagarra txikitzea. Gero han barrika bete eta gurdian ekarri behar etxera. Kanila jarrita izaten zuten eta nahi zutenean edaten zuten sagardoa.

76. Baserriari esker goserik ez, baina goi-mailako ikasketarik ere ez (BAL-006/002)

Baserritik bizi ziren eta goserik ez du sekula pasa baina lan asko egitea suertatu izan zaio. Ahal zuenean, jolasera ihes egiten zuela kontatzen du. 13 urterekin utzi behar izan zuen eskola. Goi-mailako ikasketak egin ezin izanaren pena dauka.

77. Gaztelaniaren ezarpenak huts egin zuen Baliarraingo elizan (BAL-006/003)

Umetako jolasak izendatzen ditu. Madrilen zuen lehengusu bati esker ikasi zuen erdaraz. Horri esker, ondo moldatzen zen eskolan. Gerraostean, meza santua eta arrosarioa gazteleraz ospatu behar zituen apaizak derrigor. Agindu hark pare bat aste iraun zuen ordea Baliarrainen. Antza denez, eliztar guztiek euskaraz erantzuten zioten apaizari.

78. Jantzera eta orrazkerak urteroko argazkian (BAL-006/006)

Esku-pilotan aritzen zen ahizpak "corte a lo garçon" egiten zion bere buruari bi ispilu aurrez aurre jarrita. Gasteizko senideek ekarritako arropak jantzen zituztenez, ondo jantzita ibiltzen zirela iruditzen zaio. Herriko sekretarioak urtean behin argazki bat ateratzen zien.

79. Batez ere Legorretatik etortzen ziren dantzara (BAL-006/008)

Inguruko herrietatik jende ugari etortzen zen dantzara soinu-jolea baitzegoen Baliarrainen baina, batez ere, Legorretakoak ziren etortzen zirenak. Apaiza falta zen egun bateko pasadizo bat kontatzen du.

80. Kanpaiak nola eta zertarako jotzen ziren (BAL-006/009)

Kanpaiak nola eta zertarako jotzen zituzten azaltzen du. Herriak zer bait ematen zieten ordainetan nahiz eta ez duen gogoratzen zenbat.

81. 20 urterekin Zumarragara dontzeila (BAL-006/011)

20 urte zituela ahizparen etxea utzi eta Zumarragako Ugaldetarreneira joan zen dontzeila lanak egitera. Eskolan baino gehiago ikasi zuela dio. Lan baldintzei buruz dihardu. Oroitzapen onak gordetzen ditu.

82. Dontzeilaren lanak aberatsen etxean eta negozioan (BAL-006/013)

7 urtez egon zen Zumarragan Ugaldetarrenean. "Transbordo" zen haien negozioa eta hari buruz dihardu. Telefono deiak nola egiten ziren azaltzen du.

83. Beltzez jantzita ezkondu eta Iruñeara eztei-bidaian (BAL-006/015)

Beltzez jantzita ezkondu zen; garai hartan beltza dotorea zen. Jostun batek josi zion eztei-jantzia. Eztei bidaiari buruzko azalpenak ematen ditu. Ez omen zuten diru asko gastatu.

84. Kalabazarik handienak, senarrari (BAL-006/016)

Senarra nola ezagutu zuen. Ezer jakin gabe ezkondu zela dio; inork ezer irakatsi ez zionez, asko sufrituko zuenaren beldurrez ezkondu zen baina gero ez omen zen horrela izan.

85. Baserriko lanak eta estraperloa (BAL-006/018)

Baserriko lanak: itulan ibili, baratzean jorran, abereekin... Anaia arduratzen zen herriko baserri guztietako txerri-hilketaz. Goserik ez zuten pasa. Baserri batzuk gerraostean, estraperloari esker, negozioa egin zutela kontatzen du.

86. Baliarrainen frontea sartu zenekoa (BAL-006/019)

Baliarrainen frontea sartu zenean Ordiziara egin zuten ihes. Aita geratu zen Baliarrainen eta gorriek gurutzea bota zutela kontatzen ziela dauka gogoan.

87. Haurdunaldi eta erditzeak nolakoak izan ziren (BAL-006/021)

4 seme-alabak erietxean izan zituen. Haurdunaldiaz nola jabetu zen kontatzen du. Medikuaengana kontrolak egitera joan eta ezer askorik ez zietela esaten dauka gogoan. Erditzeak nolakoak ziren.

88. Erditu ostean emakumeek elizatik pasa behar zuten (BAL-006/022)

Bataio xumeak egin zituen. Aita pontekoak baino ez zituzten gonbidatzen. Haurra jaio eta egun gutxiren buruan, emakumeek arima araztea, garbitzera elizara, joan behar izaten zuen; gizonezkoek ez ordea. Nahiz eta garai hartan ohikoa zen eta pentsatu gabe egiten zuen, gaur egun ez zaio batere ongi iruditzen Bittoriri.

89. Beheko sua: nola piztu eta zertarako erabili (BAL-007/002)

Baserri handia zen Bidarte. Beheko sua zegoen sukaldean; hari buruzko azalpenak. Lurrezko eltzeak zoruan jartzen ziren, zartaginak aldiz zintzilik. Sua nola pizten zuten azaltzen du.

90. "Su berria" (BAL-007/003)

"Su berria": etxeko sua atera eta elizan piztutako sua sartzen zuten etxera. Pazko garaian egiten zen.

91. Saskiak nola egiten diren (BAL-007/004)

Saskiak, gurdiak eta lerak egiten zituen Hilariok. Aitak erakutsi zion saskiak egiten. Gaztaina eta hurritza erabiltzen zituen zumitzak egiteko; nola egiten zituen azaltzen du. Baratzeko lanetarako erabiltzen zituzten saski haiek.

92. Zuhaitzak mozteko ilargiari begiratzen zitzaion (BAL-007/006)

Gurdiak egiteko prozesua. Haritza erabiltzen zuen. Baita aulkiak egiteko ere. Zuhaitzak mozteko garaian, egurra gogorragoa izan zedin, ilargia oso kontutan hartzen zuten: haritza botatzeko ilbeheran egin behar zen, hurritza berriz, ilberri zegoenean mozten zen.

93. Baliarraingo baserri guztien izenak (BAL-007/009)

Baliarraingo baserri guztiak izendatzen ditu. Baserrien artean lehia egon ohi zen.

94. "Pinpineketan" jolasten (BAL-007/010)

Umetako jolasak. "Pinpineketan" zeritzon jolasari buruzko azalpenak ematen ditu.

95. Eskola garaia (BAL-007/011)

12 urtera bitartean joan zen Baliarraingo eskolara. Legorretan hartu zituen gero, beste bi urtez, aparteko eskolak. Neska eta mutilak, elkarrekin joaten ziren eskolara. Ordiziako irakasle erdaldunaren makila dauka gogoan.

96. Soinujolea igandero Baliarraingo plazan (BAL-007/013)

Dantzari ona izan da Hilario. Baliarrainen bazen soinujolea eta hari esker ia igandero zegoen dantzarako aukera. Etxetik abiatzen zen plazaraino soinu txikia joaz.

97. Dantza osteko neska-laguntzeak (BAL-007/015)

Dantza lotua galarazita egon zen hasiera batean baina 16-18 urte zituenetik aurrera baimendu zutela kontatzen du. Neska-laguntzeak ohikoak ziren; emaztea horrela ezagutu zuen.

98. Laian nola egiten zuten (BAL-007/016)

Baserriko lanak izan ditu ogibide. Laian nola egiten zuten azaltzen du. Legorreta edo Ataungo errementariak egiten zituzten laiak.

99. Ferratzailearen lana (BAL-007/017)

Legorretako ferratzailearengana eramaten zituzten behiak. Abereak nola ferratzen zituzten azaltzen du. Ez zuten ganadu guztia ferratzen, ezinbestekoa zena bakarrik.

100. Gariaren inguruko lanak (BAL-007/019)

Garia erein eta, heldu artean, bakean utzi behar omen zaio. Artoak aldiz, lan handiagoa ematen zuela kontatzen du. Irina nola egiten zuten. Irina eta babarruna garo pilan zuloa egin eta ezkutatuta izaten omen zuten.

101. Zergatik utzi zioten garia egiteari (BAL-007/021)

Amak etxean egiten zuen ogia. 40 urte baino gehiago izango dira Bidearten garia egiteari utzi zitzaiola; irinik ere ez da ordutik egin. Arrazoiak.

102. Txorimaloak (BAL-007/022)

Txorimaloak jartzen zituzten soroetan. Arbi-hazi txoriak ziren gaiztoenak. Makilari tomate-poteak lotu eta sukalderaino botatako soka astinduz uxatzen zituzten txoriak. Azeriak ere ibiltzen ziren, baina gutxiago.

103. Artoaren inguruko lanak (BAL-007/025)

Artoak, soroan zegoen bitartean, gariak baino lan handiagoa ematen zuen. Prozesuari buruzko azalpenak ematen ditu. Azaroan biltzen da artoa. Artoa zuritzen aspertu egiten ziren umetan.

104. Idien laguntzaz pistak egiten (BAL-007/026)

Pagadia botatako lekuan idiekin pistak egiten ibili izan da basoan. Lekuaren arabera, gurdi motzaren gainean edo arrastaka garraiatzen zituzten enborrak.

105. 8 hilabetez paper-fabrikan (BAL-007/027)

Paper-fabrikan 8 hilabetez egin zuen lan. Bere burua aurkeztu zuen lanerako; nonahi aurki zitekeen lana garai hartan. Baserrian ere lan handia zegoelako utzi zuen fabrikako lana.

106. Festak abuztuaren 15ean (BAL-007/028)

Baliarraingo jaiak abuztuaren 15ean ospatzen dira. Alegiako tren geltokiraino etortzen zen Tolosako soinujolea eta, handik, Hilarioren anaiak ekartzen zuen herrira aurrez apainduriko zalgurdian. "Oilasko jokoa" eta "zinta karrera" nola jokatzeko zituzten azaltzen du. Herrikoak ziren ibiltzen ziren soinujoletak. Bertsolariak ere izaten ziren.

107. Uzta onak eskatu eta bedeinkatzeko elizkizunak (BAL-007/029)

Uzta onak eskatzeko prozesioak antolatzen zituzten eliza inguruan. Uztak bedeinkatzeko aldiz, elizara eramane ohi zituzten aleak, barazkiak, fruituak, etab. txorta bihurtuta.

108. Baliarraingo eliza (BAL-007/031)

Errogatibak, elizari bueltan, prozesioak eginez egiten ziren. Baliarraingo elizan ez zegoen izendatutako lekuri. Organoa oso ona zen.

109. Lurrak bereizteko mugarriak (BAL-007/039)

Mugarrien bitartez banatu eta bereizten zituzten lurak. Batzuetan harriak desagertzea ere gerta zitekeen.

110. Amonak afaria prestatzen zien artzainei (BAL-008/005)

Gurasoez gain, aitona-amonak ere baserrian bizi ziren beraiekin. Amona alai egoten zen beti. Artzainak izaten zituzten artaldea zaintzen eta haiei afaria prestatzen zien. Lo ere bertan egiten zuten. Nagusia Abaltzisketakoa zen.

111. Babarrunak egunero: astean zehar gorriak, jaietan zuriak (BAL-008/007)

Ama aritzen zen sukaldean eta berak laguntzen zion ahizpa joan zenez gero. Babarruna jaten zuten egunero: astean zehar gorria eta igandean zuria. Aitak igandetan ere gorria nahiago. Babarrun zuria ere etxekoa. "Egosbiguinagoa" izaten zela dio. Gosaltzeko kafesnea. Taloak ere jango zituzten. Bera omen zen mizkinena.

112. Arropa etxean xaboitu eta San Juanera astintzera (BAL-008/009)

Arropa etxean xabotzen zuten eta gero San Juanera astoan eramane, astintzeko. Gero, etxe ondoan zabaldu. Garai batean xaboia etxean bertan egiten zen. Ogia ere etxean egiten zuten. Gaur egun asko aldatu dira kontuak.

113. Ogia, etxean egindakoa (BAL-008/011)

Ogi ona egiten zuten etxean. Etxeko garia Ordiziara eramane zuten errotrara. Legamia kanpotik ekartzen zen astean behin. Ogi zati bat gorde egiten zen, hurrengo egin behar zenean, hari nahasteko. Ekonomikan egiten zuten ogia. Errazionamendu sasoian ogi beltz-beltza ematen zieten.

114. Haragi gutxi ekartzen zen kanpotik (BAL-008/012)

Txerria hiltzen zuten etxean. Txorizoak eta odolkiak egiten zituen amak. Haragia Ordiziatik ekartzen zuten astean behin edo.

115. Haragia gatza emanda kontserbatu (BAL-008/016)

Ardia hiltzen zenean, zezina egiten zen. Txerri haragia ere gatza emanda kontserbatzen zuten. Lehenbizi zintzilik jartzen zen lehortzeko eta gero kutxan gorde. Garaian garaikoa jaten zuten. Txerria noiz hiltzen zen.

116. Gaztainak basotik gurdian (BAL-008/017)

Ganbara gaztainaz beteta edukitzen zuten. Gurdian ekartzen zituzten basotik. Orduan ez zela gaztaina ez zen beste arbolarik dio. Gero galdu egin zen, gaitzaren ondorioz.

117. Baliarraingo eskolan gaztelaniaz (BAL-008/020)

Nahiko goiz hasi zen eskolan, ahizparekin batera joaten zelako. Baliarrainen beti egon zen maistra bere sasoian. Azkenengoz Ordiziako maistra bat egon zen. Gaztelaniaz egiten zien. 14 urte ingurura arte ibili zen eskolan. Altzan fama ona zuen maisua omen zegoen, baina bera ez zen hara joan.

118. Umetan herritik gorakoak eta beherakoak elkarren kontra (BAL-008/021)

Umetan herritik gorakoak eta herritik beherakoak elkarren kontra jarduten zuten. Pilota batekin nola jolasten zuten.

119. Iluntzean goiz etxeratu behar (BAL-008/025)

Ez ziren urrutira joaten jaietara edo erromerietara. Iluntzean goiz etxeratu behar izaten ziren, bestela amak begiratu txarra. "Aimaritako" (abe mariatako) kanpaiak; ordurako etxeratu egin behar.

120. Urtean bi aldiz Larraitzera erromeriara (BAL-008/027)

Urtean bi aldiz joaten ziren Larraitzera, San Pedroetan eta Pazkoa bigarrengean. Jende asko egoten zen. Soinua egoten zen. Saltzaileak ere egoten ziren, erroskillak saltzen. Abaltzisketatik ere joan zitekeen, baina Gaintzatik zehar itzultzen ziren Baliarrainera.

121. Karea, etxea zuritzeko (BAL-008/031)

Belarrarekin egindako erratzarekin garbitzen zuten etxea. Paretak zuritzeko "letxera" erabiltzen zen. Karea ekartzen zen eta hari anil pixka bat nahastu, biziago gera zedin.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-26

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com